

LURRALDE-ANTOLAMENDUAREN ERRONKAK

EUSKAL HERRIAN: EIBARKO MANIFESTUA

- Lurralde-antolamenduak gizarte eta herrien ongizatea eta garapen integrala (soziala, ekonomikoa, ekologikoa, kulturala, linguistikoa,...) bilatu behar du.
- Interes orokorrari erantzun behar dio eta ezin da kapitalaren interes ekonomiko pribatuan oinarritu.
- Gizartearen parte-hartze aktiboa bultzatu behar du, lurraldearen gaineko eztabaida irekiz. Administrazioek herritarren parte-hartzea hasieratik bermatu behar dute edozein plangintzetan, behetik gorako prozedurak ahalbidetuz.
- Partaidetza bideratzeko Administrazioen hizkuntza gizarteratu eta publikitate administratiboarekin bukatu behar da.
- Demokratikoa izan behar du; populazioaren kontsensuarekin egin behar da.
- Orokorra izan behar du. Horrela, ez lioke sektore zehatz bati garrantzia eman behar bakarrik, lurraldean agertzen diren arlo eta sektore guztiak ukitu beharko dituelako.
- Prospektiboa izan behar du. Etorkizunera begira eman daitezkeen dinamikak, arazoak, aukerak eta bestelakoak, aurrez aurre ikusi eta aztertu behar ditu.
- Transdisziplinaria izan behar du. Lurralde-antolamenduan ardura duten zientzia eta diziplina ezberdinak hartu behar ditu-eta.
- Funtzionala ezik, utopia puntu bat eraman beharko luke. Denborarekin, garai batean utopikoak ziren ideiak betetzen direlako.
- Dinamikoa ere izan beharko litzateke, arazo, eztabaidak eta prozesuek erantzun berriak behar dituztelako.
- Euskal-Hiria kontzeptua guztiz desagokia da, hiriak herrien gainetik jarri eta guztiz hiritarra den eredu bat bilatzen duelako. Horrela, naturgune edota landa esparruak ez dira behar bezala kontuan hartzen. Kontzeptuak azpiegitura erraldoien aldeko apustua laburbiltzen du, kooperazio mekanismoen gainetik kompetentziakoak lehenetsiz.

Arlo politiko-juridiko-administratiboa:

- Lurralde-antolamenduak eskala ezberdinetako muga juridiko-administratiboak gainditu behar ditu eta Administrazioen arteko benetako koordinazioa eskatzen du.
- Epe luzerako ikuspegiaren beharra eskatzen du arau eta plangintzetan.
- Benetako interes orokorraren definizioa gizarteak berak ezarri beharko luke.
- Euskal Herria bere osotasunean kontuan hartuko duen lurraldearen antolamendurako politikak behar dira.
- Administrazioaren zeharkakotasuna eta koordinazioa bermatzeko, sail sektorial guztien gainetik egongo litzatekeen beste baten kudeaketa beharrezkoa da.

- Tokiko eta eskualdeko organo eta foro bilguneen sorrera bultzatu beharko litzateke, eskala lokalean oinarri izango luketenak. Bilgune horien arteko koordinazio horizontala artikulatu behar da ere.

Ingurumena:

- Jasangarritasuna eta garapen eredu lurraldearen ezaugarriek mugatzen dute, lurraldea eta bere jasotze ahalmenak mugak dituztelako. Horrela, hazkunde ekonomikoak (eta batez ere bere ondorioak) muga definitua dauka eta jada gainditua dago Euskal Herrian. Gure baliabide natural (eta hemendik urrun daudenak ere) eta lurraldearen harrera ahalmenaren gaintetik bizi gara, produkzio-merkatu-mugikortasun eredu jasangaitza dugularik.
- Ekonomiarekin proiektatzetik naturarekin proiektatzera pasa beharra dago.
- Administrazioek darabilten “hazkunde sostengarria” kontzeptua kontraesankorra da, fisikoa den ezerk ezin baitu mugarik gabe hazi. Horregatik, hiztegiaren erabilera eta kutsadura kritikatu beharra dago; ingurumena, jasangarritasuna, ekohiriak,...edota bestelako terminoen atzean erabilpen interesatua eta esanahiaren galera dagoelako.
- Natur balio asko ordezkaezinak dira eta dirutan edota ongizate mailan kuantifika ezinak.
- Bestelako ekimenak (jarduera ekonomikoak eta azpiegitura nagusiak) aurrera eraman baino lehenago, ingurunearekin erlazionatzen diren plangintzak bultzatu eta bete beharko lirateke.
- Azpiegitura, kontsumoa, energia, uraren kudeaketa eta hondakinen gaineko beste eredu bat ezartzea beharrezkoa da, deshazkundean eta petroliorik gabeko etorkizuna prestatzera oinarrituko direnak.
- Garatzeke dauden jarduera eta ekimenak osatu beharko lirateke, hala nola:
 - Korridore ekologiko sare koherente bat.
 - Paisaien katalogo egoki eta bateratuak, eta baita kudeaketa egokia bermatzen duten planak.
 - Babestuta dauden eremu guztien kudeaketa planen garapena.
 - Ingurumen balioak dituzten bestelako eremuen babespena.
 - Babestuta dauden espezie ezberdinetako planak (babesteko planak, berreskuratzeko planak, kudeaketa planak, eta abar)
 - Ingurugiro legislazio egokiago bat sortu.
 - Ingurugiroaren zaintzaz arduratzen den polizia berri bat sortu.

Gizartea:

- Indarrean dagoen garapen ereduak desberdintasun sozial ikaragarriak sortarazten ditu (bai Euskal Herrian eta baita munduko herrialdeen artean).
- Gizarteak eragile aktibo izan behar du eta ez jasole edo kontsumitzaile pasiboa.

- Lurralde-antolamenduaren garrantzia herritaru beharko litzateke, hezkuntzan lurralde antolaketak garrantzia izan behar duelarik.
- Lurraldea eta gure egunerokotasunean eragina izan dezaketen plangintza eta proiektuen gaineko informazioaren erabilerak garbia, gardena, unibertsalki eskuragarria eta ez pribilegiatua izan behar du.
- Lurralde-antolamenduak eraikitakoaren optimizazioan oinarritu behar du.
- Lurralde-antolamendua gizartearen barruan ematen diren desorekak konpontzeko erabiltzeko aukera.

Ekonomia:

- Interes ekonomikoak eraldatzen dute lurralde-antolamendua eta aldrebes izan beharko luke.
- Sektore ekonomiko ezberdinen oreka bilatu behar da.
- Lurralde-antolamenduak lehenengo sektorea eta soberania alimentarioa bultzatu behar du.
- Lurralde-antolamenduak benetan errentagarriak eta onurak ekoizten dituen jarduerak bultzatu beharko lituzke. Guztiz espekulatiboak suertatzen direnak ordea, detektatu eta baztertu beharko lituzke.

Mugikortasuna

- Gehiegizko mugikortasunean oinarritutako lurralde ereduan bizi gara.
- Azpiegitura erraldoi eta berriek ez dute sustraikoa den arazoa konponduko. Azpiegitura gehiagok trafiko gehiago erakartzen dute.
- Lur erabilerak uztartu eta konplementatu behar dira, desplazamenduak murriztuz.
- Eguneroko desplazamenduak asetuko dituen kalitatezko garraio publikoa sustatu behar da. Eskualde barneko eta gertuko eskualdeen arteko desplazamenduak ahalbidetuko lituzkeen tren sarea bultzatu eta hobetu beharko litzateke.
- Distantzia laburrentzat ibilgailu ez-motorizatuak bultzatu.
- Ibilgailu pribatu banakakoaren erabilpena mugatu eta kontrolatu beharko litzateke.
- Probintzia guztiek ez dute azpiegitura mota guztiak izan behar derrigorrez. Horrela, eskualde testuinguru batean ezinezkoa litzateke itsas superportuak edota aireportuak nonahi izatea.
- Abiadura handiko trenak ez ditu gaur egun ematen diren trafiko arazoak konponduko.
- Abiadura Handiko Trena ez ditu gaur egun existitzen diren hiri eta herri esparruen arteko arazoak eta desorekak konponduko, guztiz alderantziz; areagotuko ditu-eta.